

æk
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Kalean dira ikastetxeetarako 23. KORRIKAREN unitate didaktikoak, AEKren eta Ikastolen Elkartearen elkarlanari esker

Euskal Herri osoko eskoletan zabaltzeko unitate didaktiko horiek eskuragarri daude [KORRIKAREN webgunean](#). Ikasmaterialak adinaren arabera sailkatuta daude, Haur Hezkuntzatik Batxilergora. Hainbat berrikuntza dakarte, baina betiko helburuak: euskararen aldeko jarrera zabaltzea, euskararen aldeko kontzientzia suspertu, eta erabileran eragitea; eta, nola ez, KORRIKA ezagutaraztea. Iñaki Zapirain Orereta ikastolako irakasle eta unitate didaktikoen egilearekin [elkarrizketa laburra](#) izan dugu.

KORRIKAREN azken bi edizioetan bezala, unitate didaktikoak **modu digitalean** argitaratu dira. Unitateok helburu dute euskararen erabilera sustatzea eta indartzea eta, noski, euskararen aldeko ekimenaren girotze-lana egitea.

Era berean, aipatzekoa da jarduerak ez direla soilik euskara arloan lantzekoak. Izan ere, hainbat irakasgaitan erabiltzeko pentsatuta daude, Gorputz Hezkuntzan, esaterako.

Unitateak **adinaren arabera** sailkatuta daude, eta, edizio honetan, izen berriekin datoz:

HARRO unitatea, 3-6 urte bitartekoentzat.

HERRI unitatea, 6-9 urte bitartekoentzat.

ORRO unitatea, 9-12 urte bitartekoentzat.

KORRI unitatea, ikasle nagusientzat (12-18 urte bitartekoak).

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



HARRO eta HERRI unitateetan, ikasgelako arbela digitalean proiektatzea proposatzen da. ORRO eta KORRI unitateetan, ordea, ikasleek ordenagailu eramangarriak erabil ditzakete webgunean sartzeko.

Gida didaktikoak irakasleei ere badaude zuzenduta. Unitate bakoitzari dagokion gida deskargatzeko aukera dago; jarduerak aurrera eramateko argibide guztiak daude bertan.

Iraupenari dagokionez, bi asteko kanpaina egitea proposatzen da. Hori bai, irakasle bakoitzaren esku geratzen da edukiak denbora luzeagoz erabili edo proposamenak laburtzea.

Prozedurari dagokionez, gauza bera: edukiak adin-tarteka banatuta egon arren eta jarduerak nolabaiteko hurrenkera bat badaukate ere, irakasle-taldearen esku geratuko da jarduera guztiak gauzatu ala ez, aukeraketa bat egingo den, beste adin-tarte baterako jardueraren bat egokitu nahi duten... Azken batean, materiala ez da zurruna eta nahieran erabil daiteke.

Edukiak eta berrikuntzak

Ispilu harrogarria. Goiatz Labandibar idazlearen ipuin batek ematen die lotura jarduerari. Ipuineko protagonistak Nora eta Harri izeneko bi ume dira, eta, edizio honetako leloari (HARRO HERRI) erreferentzia eginda, hainbat gairen inguruan hausnartuko dute ikasleek: lotsari buruz hitz egitea, harro sentitzearen garrantzia... Lur Kortak egin du ipuinaren kontaketa.

Harro, herri, korri! esku-jolasa. Harri, orri, ar jolasa aitzakia gisa hartuta, Irundik Baionara doan ibilbidea osatu beharko dute.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Artelana. Edizio honetako mihiseak, 23. KORRIKAREN logoaren atzeko hondoak, euskararen eta euskal kulturako erreferentzia pila bat ditu. Ikasleek horiek identifikatu beharko dituzte, antzeko irudiak sortu eta horma-irudi handi bat eraiki.

Omenaldia jarduera. KORRIKAREN omenduen inguruko lanketa. Iparraldeko lagunek azterketak euskaraz egiteko dituzten arazoez jabetzea da jardueraren helburua, eta Seaskaren *Azterketak Euskaraz* kolektiboari elkartasun-gutunak bidaltzea proposatzen da. Horrekin lotuta, 23. KORRIKAREN dokumentalaren inguruan zineforum bat egitea ere iradokitzen zaie ikasle helduenei.

Ozto(poz) lasterketa. KORRIKAK ibilbidean zehar gainditu behar izaten dituen oztopoei erreferentzia egiten die jarduerak. Gorputz Hezkuntzako saioetan, oztopoz beteriko zirkuitu bat gauzatzea proposatzen da bertan.

Plazara dantzara! jarduera ere topatuko dugu. Edizio honetarako Myrian Perezek sortu duen koreografia, alegia.

Korrikahoot jolasak. KORRIKAREN historia hobeto ezagutzeko.

Bingo musikatua. Hainbat ediziotako kanta ezagutzeko ariketa.

Dagoeneko klasiko bihurtu diren jarduerak ere badaude: **petoa, lekukoa, ibilbidea, mezua...**

Esan bezala, unitate didaktikoen bilduma hemen dago eskuragarri: www.korrika.eus webgunean, [hemen](#) zehazki.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus